ESKOLA AGENDA 2030-EN UDAL-FORO BERRIA ORTUELLAN

Posted on 30/01/2026 by Naider

Category: Albistea
Tags: Dinamización y contraste, Eskola Agenda 2030

Ostiral honetan, Eskola Agenda 2030 testuinguruan bigarren lan- tailerra aurrera eraman da **Ortuellako ikastetxeekin** OKEan**.** Bertan parte hartu dute **San Felix Ikastola, Otxartaga HLHI eta Ortuella BHI** ikastetxeek. Tailer hauen helburua **apirilaren 30ean** Otxartaga zentroan bertan **bigarren eskuko azoka** bat antolatzea da, 12. Garapen Jasangarriaren Helburuari **(GJH 12)** lotuta dagoena: **Kontsumo arduratsua**.

Lehenengo tailerra abenduaren 4an egin zen, eta ikastetxetako ikasleek osatutako **lantaldeak antolatu** ziren. Talde horiek azoka abian jartzeko **beharrezko ekintzak identifikatu** zituzten, besteak beste, kartel bat eta bideo bat egitea, azken ekitaldirako beharrezkoak diren materialak eta txandak ezartzea, eta udalerriko bizilagunek ekarritako produktuen bilketa antolatzea.

Bigarren tailerrean ekintza horiek gogoratu dira eta ikasleak **aktiboki lan egiten** hasi dira, saioaren ekoordezkarien eta NAIDEReko dinamizatzaileen laguntzarekin. Gainera, **ardura berriak** banatu dira eta **plangintzan aurrera** egin da, hurrengo tailerrari begira **helburuak ezarriz**. Hurrengo tailerra **martxoaren 27an** izango da, eta berriro bilduko dira ekitaldiaren **antolaketan aurrera** egiten jarraitzeko.

Horrelako jarduerek ikasleen **autonomia**, **kudeaketa-gaitasuna eta pentsamendu kritikoa indartzen dituzte**, hasieratik modu aktiboan parte hartzen duten benetako ekitaldi batean islatuko da.

